



EBAZPENA, 2024KO MARTXOAREN 8KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ EBAZTEN BAITA BBK URDAIBAI ZENTROAN (URDAIBAI) 2024/2025 IKASTURTEAN ZERBITZU-EGINKIZUNAK LUZATZEKO DEIALDIA.

Zerbitzu-eginkizuna, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 106. artikuluan arautua, lanpostuak betetzeko ezohiko modu bat da.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2024ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez, aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezarri zen, errebokatuta partzialki 2024ko otsailaren 23ko Ebazpenaren bidez.

Aipatutako Ebazpenaren bederatzigarren atalean ezarritakoaren arabera, deialdi espezifiko bakoitzeko luzapenak emateko eta uko egiteak onartzeko ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, eta interesdunei, jakinarazpenaren ondorioetarako, HEZIGUNEA plataforman.

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

EBAZTEN DUT

Lehena.- I. Eranskinean adierazten diren pertsonen, Urdaibai BBK Zentroan zerbitzu-eginkizuna luzatzea, 2024/2025 ikasturterako.

Luzapenak egiteko baldintza izango da 2024ko otsailaren 16ko ebazpenean jasotako eskakizun guztiak betetzea, zein 2024/2025 ikasturtean bete beharko baitira. Bestela, emandako zerbitzu-eginkizunaren luzapena ondorioz gabe geratuko da adierazitako betekizunak ez betetzeagatik.

RESOLUCIÓN DE 8 DE MARZO DE 2024, DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE RESUELVE LA CONVOCATORIA PARA LA PRÓRROGA DE COMISIONES DE SERVICIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2024/2025 EN EL CENTRO BBK URDAIBAI

La comisión de servicios, regulada en el artículo 106 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, se encuentra configurada como una forma extraordinaria de desempeño de puestos de trabajo.

Mediante Resolución de 16 de febrero de 2024, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, se estableció el procedimiento de prórrogas de comisiones de servicio autorizadas para cursos escolares anteriores, revocada parcialmente por la Resolución de 23 de febrero de 2024.

Conforme a lo establecido en el apartado noveno de la citada Resolución, la resolución de concesión de prórrogas y aceptación de renuncias por cada convocatoria específica se publicará en la página web del Departamento de Educación, y, a efectos de notificación a las personas interesadas, en la plataforma HEZIGUNEA.

Así, en virtud de las facultades que tengo conferidas,

RESUELVO

Primero.- Prorrogar la comisión de servicios en el Centro BBK Urdaibai, durante el curso 2024/2025, a las personas que se relacionan en el Anexo I.

Las prórrogas estarán condicionadas al cumplimiento de todos los requisitos contemplados en la resolución de 16 de febrero de 2024; los cuales deberán mantenerse a lo largo del curso 2024/2025. En caso contrario, la prórroga de la comisión de servicios concedida quedará sin efectos por incumplimiento de los requisitos indicados.



Luzapenak ez du ondoriorik izango, baldin eta lanpostu hutsik ez badago benetan gauzatzeko, lekualdaketa-lehiaketan erregelamenduz betetzen delako edo lanpostuari dagokion betetzeko modua dagoelako. Eraginik gabe geratuko da, halaber, lanpostuaren titularra lanera itzultzen bada edo arauz betetzen bada.

La prórroga quedará sin efecto en el caso de que no hubiese plaza vacante para su materialización efectiva, a consecuencia de su cobertura reglamentaria en concurso de traslados o la forma de provisión que corresponda al puesto. También quedará sin efecto en el supuesto de reingreso de la persona titular del puesto o cualquier cobertura reglamentaria.

Oro har, ezingo zaio uko egin ebazpen honen bidez emandako luzapenari.

Con carácter general, no se podrá renunciar a la prórroga concedida mediante esta resolución.

Bigarrena.- Ez dago ezetsi beharreko eskaerarik, ezta onartu beharreko berariazko ukorik ere.

Segundo.- No hay solicitudes a desestimar ni renunciaciones expresas que aceptar.

ERREKURTSOAK

RECURSOS

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejería de Administración y Servicios en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en la página web del Departamento de Educación, con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 8an.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL

I ERANSKINA/ ANEXO I

LUZAPENAK / PRÓRROGAS

CENTRO BBK URDAIBAI
URDAIBAI BBK ZENTROA (URDAIBAI)

NAN/DNI	IZENA/NOMBRE	ABIZENA/APELLIDO	ABIZENA/APELLIDO
***5955*	Kepa	Atristain	Zugadi
***7261*	Agurtzane	Txertudi	Magunazelaia
***5052*	Ibon	Lejarcegui	Zuzaeta
***1470*	Amagoia	Garcia	Elexpe
***1672*	Aitor	Sanchez	Oliva
***7158*	Javier	Landeta	Zarragoicoechea
***8554*	Gaizka	Balza	Careaga
***1809*	Eneritz	Intxausti	Mestraitua
***2494*	Egoitz	Isasi	Salterain
***5757*	Asier	Morales	Gregorio